| AMARRALEKUA TRUKATZEKO ESKABIDEA | |
|---|---|
| Zer da? Zertan datza? | Amarralekua duten BI titularrek edo haien legezko ordezkariak, behar bezala egiaztatuta, eskabide-idazki bat aurkezten dute. Horren bidez baimena eskatzen dute amarralekuak bien artean trukatzeko, baimenduta dauden ontzientzat, kategoria eta portu berean. |
| Nork eska dezake? | Indarrean dagoen amarralekuaren edozein titularrek edo haren legezko ordezkariak, behar bezala egiaztatuta. |
| Aurkeztu beharreko dokumentazioa | • Trukea eskatzeko idazkia, trukatu beharreko plazen bi titularrek sinatua, hauek adierazita: zein portu den, trukatu beharreko amarralekuak, eta plazen eta betetzen dituzten ontzien titularren izenak.<br>• Bi eskatzaileen NAN. |
| Non izapidetzen da? | • Ahal dela, eskabidea egiten den portuko kapitaintzan, jendeari arreta emateko ordutegian (kontsultatu helbideak).<br>• Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako bitartekoen bidez. |
| Betebehar ekonomikoak | Eskabide-izapideak ez dakar betebehar ekonomikorik. |
| Prozesuaren edo ebazpenaren epea | • Aurreikusitako epea: hilabete 1<br>• Legezko epea: 3 hilabete<br>• |
| Lege-esparrua | • 2/2018 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena.<br>• Amarratze Agindua, 2017ko urriaren 19koa.<br>• 39/2015 Legea, Administrazio Prozedura Erkidearena.<br>• Beste araudi batzuk. |
| Oharrak | Amarralekuak trukatzeko eskabidea ezin izango da ontzia(k) aldatzeko eskabide(ar)ekin batera egin. |
| Onarpena | Onarpen- edo ukatze-ebazpena |
| Jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura | • Eskabidearen berrikuspena eta azterketa<br>• Ebazpena |
| Ondorengo izapideen laburpena | Ez da aplikatzen |